



Ale honetan

Aurkezpena 1

Ikerketak

- Kepa Larrea* Euskara ikasteko metodoen bilakaera: 1956-1986 3
Josu Perales Sexua/generoa H₂ ikasteen: gaia zertan den 22

Bestelako lankidetzak

- Bakarne González* Nortasunaren eragina H₂ren irakaskuntzan 34
Pello Esnal Testu-motak: sekuentzia eta hizkuntz ekintza 55

Beste iturrietatik

- Anna Turula* Hizkuntz antsietatea eta ikasgelako dinamika 67
Alessandro Benati Zer gramatika?: ulertzean oinarritutako metodo bat gramatika irakasteko atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan 77
Nunan, D; Shohamy, E; Widdowson, H.; Larsen-Freeman, D.; Tucker, R. Eztabaida handia. Proposamena: TESOL zientzia da ez artea 92

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2003an hiru ale:
11,44 €. Honela ordainduko dut:**

☐ Kontu korronte bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:


Sukurtsala:

Zenbakia:

☐ Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

☐ HABEren izenean luzaturiko txkeez

☐ Errenboltsoz



**Helbide honetara bidali behar da:
HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEK aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



Aurkezpena

Hemen duzu, irakurle, HIZPIDE aldizkariaren 53. alea.

Ikerketak.– “Euskara ikasteko metodoen bilakaera: 1956-1986”. Horra lehenengo artikulua izenburua. Kepa Larrea irakaslearen eskutik datorkigu. Eta berak berriki egindako ikerketa mamitsua, doktore-tesia, du oinarri. Izenburuak berak dioskunez, lan honen bidez, 1956tik 1986ra bitartean hogeita hamar urtez helduen euskararen irakaskuntzan erabilitako metodoen bilakaera aztertzen da. Hizkuntza zabalduenak irakasteko joera metodologiko nagusienek gurean izan duten eragina aztertzearekin batera, garaian garaiko ingurune soziologikoari ere erreparatzen dio Kepa Larreak. Lan guztiz interesgarria dugu, euskalduntze-alfabetatzearen alorrean, hogeita hamar urteren joanean zenbat urrats eta nolakoak egin ditugun gogoratzeko.

Sail honetako bigarren artikulua izenburua da “Sexua/generoa H₂ ikastea: gaia zertan den”. Josu Peralesek idatzi du. Hizkuntz ikasle hobeak dira emakumezkoak gizonezkoak baino? Modu berean ikasten al dute bigarren hizkuntza? Zein eragin du sexua/generoa aldagaiak eskolako jardunean? Nahikoa uste hedatua da emakumezkoak gizonezkoak baino abildade handiagokoak direla hizkuntzak ikasteko. Beste hizkuntzetan egindako azterlanak ez ezik, gurean zer egin den ere hartzen da kontuan. Sexua/generoa gai zabala da, gero eta ikertuagoa. Eta, ondorioz, gero eta zientzia-argitalpen gehiago ari dira plazaratzen emaitzen berri emateko. Merezi du, ezbairik gabe, euskalduntze-alfabetatzearen alorrean ere kontuan hartzea.

Bestelako lankidetzak.– “Nortasunaren eragina H₂ren irakaskuntzan” izenburuko artikulua Bakarne Gonzalezek idatzi du. Gaiaren inguruko teoriarik behinenak aztertu eta euskaltegian euskara-irakasle bezala duen eskarmentua lagun, ikaslearen nortasuna baita irakaslearena ere aintzat hartu ditu eta horrek guztiak hizkuntz irakaskuntzarekin dituen erlazioen zer-nolakoak xehe-xehe jorratu. Artikulu interesgarria dugu ikasgelan nola aritu behar dugun etengabe gogoetatzeko.

Artikulu-sorta mamitsua eskaintzen ari zaigu Pello Esnal. “Testu-motak: sekuentzia eta hizkuntz ekintza” du oraingo artikulua izenburu. Testuaren eraketa aztertuz, dikurtso-tipoak azaldu zituen aurreko alean, 52. zenbakian, Bronckarten lana abiapuntu hartuta. Ildo beretik, testu-motak ditu orain langai, berriro ere Bronckart abiapuntu. Baina, oraingo honetan, bereizketa bat kontuan hartuta. Izan ere, testu-motak (eta, aldeak alde, diskurtso-tipoak), testu-antolaketaren elementu (sekuentzia ez ezik, hizkuntz ekintza ere badira. Horrela, gauzak argixeago gera daitez-

ke, kurrikularen lau osagai nagusiak (helburuak, edukiak, metodologia eta ikaslaren ebaluazioa) zehazte eta biltze aldera.

Beste iturrietatik.– “Hizkuntz antsietatea eta ikasgelako dinamika: ikasle helduei buruzko ikerketa bat” artikulua egilea Anna Turula dugu eta Polonian, Silesiako unibertsitatean dihardu. Hainbat eta hainbat ikasle helduk larderia, lotsa, beldurra... senti ditzakete hizkuntza ikastea. Eta egon litezke horretarako zenbait arrazoi. Ikasgelako dinamika funtsezkoa da horretan guztian. Artikulugileak antsietatea sor dezaketen hainbat alderdiri erreparatu eta horiek saihesteko hainbat iradokizun ere eskainiko ditu.

Alessandro Benati Greenwich-eko unibertsitatean dihardu. Bera da hurrengo artikulua egilea. Izenburua: “Zer gramatika?: ulertzean oinarritutako metodo bat gramatika irakasteko atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan”. Artikulugilearen xedea da gramatika irakasteko modu partikular bati arreta eskaintzea. Prozesu bidezko irakaskuntza du izena. Irakasteko modu hori zertan den ikustearekin batera, teoria eta aurkikuntza enpirikoen aldetik aintzakotzak hartzeko arrazoiak aztertuko ditu. Bere asmoa ere bada ikasgelan nola erabili daitekeen azaltzea.

“Eztabaida handia. Proposamena: TESOL zientzia da, ez artea” Horra hor punta-puntako hainbat adituri (Elana Shohamy, Henry Widdowson, Diane Larsen-Freeman eta Richard Tucker) eztabaidarako eskaini zitzaion baieztapena. Baieztapenaren egilea: David Nunan. Aukera ezin hobea dugu artikulua hau hizkuntzen irakaskuntzari, gaur egun, zein estatus epistemologiko ematen zaion jakiteko.

Eta honenbestez bukatzen da alearen mamia. HIZPIDEK probetxuzkoa dakizula opa dizu.